



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urtarrilaren 31

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Zuzenketei eta boto partikularrei eustea (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan 2018-2019 ikasturterako kontratatutako irakasle-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea ikastetxeetako zuzendariei ikasturte hasierako ohiko deialdirako deituko zaien. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian sartuko diren Haur eta Lehen hezkuntzako maisu-maistren lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Eskubide Sozietako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Urrozko zabortegia zigilatzeo prozesuan Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, familia-harrerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorren proiekturako gehieneko gastua ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren nahiz Estatuaren zorrean eta Nafarroako Estuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko intsumisoen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.**

### *ZUZENKETEI ETA BOTO PARTIKULARREI EUSTEA*

2019ko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena argitaratu zen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez.

Aipatu irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 28. Zenbakia duen zuzenketa, xedapen gehigarri bat eranstekoa, Geroa Bai eta EH Bildu

Nafarroa talde parlamentarioek eta Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztua.

– Lehen artikuluko 38. apartatuari aurkezturiko boto partikularra, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztua.

Zuzenketa horiek 2019ko urtarrilaren 15eko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman ziren argitara.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan 2018-2019 ikasturterako kontratatutako irakasle-kopuruari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Haur eta Lehen Hezkuntzan 2018-2019 ikasturterako kontratatutako irakasle-kopuruari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00179 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Irakasleen kidegoetako zuzeneko irakaskuntza-orduak gutxitzeak berekin ekarri du Maisu-

maistren Kidegoan 136 irakasle kontratatu behar izatea: urtean 5.388.899,36 euroko kostua dute kontratazio horiek. 2018ko iraila/abendua aldira, gastua 1.796.299,78 eurokoa izanen da.

Bigarren galderari dagokionez, teknikoki ezin da zorrotz zehaztu nor diren kontratatutako irakasle horiei dagozkien pertsonak, zuzeneko irakaskuntza-orduak 19,5 ordura murriztu direlako. Kasu askotan, ikastetxez ikastetxe gertatu diren ordu-igoerak izanen dira, plantilletan hobekuntza ekarri dituztenak; beste kasu batzuetan, berriz, kontratu osoak izanen dira. Nolanahi ere, irakasleen mugikortasuna eta plantilletan zein profiletan gertatzen diren aldaketak direla eta, ezin dugu datu hori atera.

Azken galderari dagokionez, Ikuskapen Zerbitzuak ez du jasota horri buruzko kexarik aurkeztu denik.

Iruñean, 2018ko urriaren 31n

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko eladuna: María Solana Arana

## **Galdera, jakiteko ea ikastetxeetako zuzendariei ikasturte hasierako ohiko deialdirako deituko zaien.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea ikastetxeetako zuzendariei ikasturte hasierako ohiko deialdirako deituko zaien. Galdera 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18-PES-00180 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Zuzendaritza-taldeekin egin beharreko bilerak ohiko moduan egingen dira. 2018an honako hauek izanen dira:

Urriaren 9an, 16an eta 23an haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako etapa guztietako zuzendariak, hurrenez hurren.

Gai-zerrendari dagokionez, ikastetxeak izanen dira deialdia bera eta gai-zerrenda jasoko dituztenak, gai-zerrenda hori guztiz finkaturik dagoenean.

Gaur egun, lehenengo taldeak honako gai-zerrenda hau dakarren deialdia jaso du:

1. Hezkuntzako kontseilariaren agurra, ikasturteari hasiera ematekoa.

2. Lehen hezkuntzako ebaluazioak.

3. Ikasturte hasierako jarraibideak.

4. Eskariak eta galderak.

Iruñean, 2018ko urriaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuako ele-duna: María Solana Arana

## **Galdera, 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian sartuko diren Haur eta Lehen hezkuntzako maisu-maistren lanpostuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian sartuko diren Haur eta Lehen hezkuntzako maisu-maistren lanpostuei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du (9-18/PES-00181). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, 2019ko ekainerako aurreikusita dagoen oposizio-deialdiak Maisu-maistren Kidegorako 73 lanpostu jaso ditu. Kopuru hori, bai eta deitutako espezialitateak ere, zabaldu egingen dira joan den ekainean onetsitako enplegu publikoaren eskaintzaren kontura (430 lanpostu bitarte jasotzen ditu Maisu-maistren Kidegorako) eta gaur egun negoziatzen ari den enplegu publikoaren eskaintzaren kontura; izan ere, azken horretan,

guztira 169 lanpostu proposatu ditu Hezkuntza Departamentuak Maisu-maistren Kidegorako.

Bai lanpostu-kopurua, bai espezialitate-kopurua aldatuko direnez, eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki beharko da. 2019ko urtarrilaren amaieran irekiko da epe hori, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren behar den ebazpenarekin. Ebazpen horretan zehaztuko da 2019ko ekainean izangaiek edukiko dituzten lanpostuen behin betiko zenbatekoa. Izena emateko beste epe hori irekitzen denetik, egutegia deialdian (1156/2018 Ebazpena) aurreikusita dagoena izanen da, izangai onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratzeari, epaimahaiak eratzeari, azterketen hasierari eta abarrei dagokienez.

2016ko maisu-maistren oposizioen aldean ageriko den berritasun nagusia izanen da izen-emate telematikorako sistema ezarriko dela, bai urtarrilean irekiko den epe berriaren izena ematen dutenentzat, bai izena emanda egon eta dokumentazio berria aurkeztu nahi dutenentzat ere.

Ez da aurreikusi inongo aldaketarik egitea Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaiekin zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 9ko 51/2018 Foru Aginduan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko elduna: María Solana Arana

## **Galdera, Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruz (9-18/PES-00182). Honekin batera, eskatutako informazioa igortzen dizu Nafarroako Gobernuoko Eskubide Sozialetako kontseilariak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 3an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman.)

## **Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eskubide Sozialetako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Eskubide Sozialetako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruz (9-18/PES-00183). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakolari jarraituz, hitzarmenetan zehaztu behar dira

beraiek dakartzaten behar edo konpromiso ekonomikoak (49.d artikulua); eta kasu horietan, haiek onesteko, inpaktu ekonomikoari buruzko txosten bat onestea eskatzen da (50.1 artikulua). Gainera, Barne Kontroleko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 17ko 31/2010 Foru Dekretuaren 26.2 artikulua ezartzen du hitzarmenak aurretiazko kontu-hartze horren pean egonen dira, eduki ekonomikoa baldin badute.

Lankidetzaren hitzarmenen kasuan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 11.4.i) artikuluan ezarritakoa bete behariko da; izan ere, hartan exigitzen da hitzarmenek jaso dezatela zein epetan eta nola aurkeztu behar diren onuradunek diru-laguntzak direla-eta emandako justifikazioak.

Azken batean, aplikatzekoa den araudia dela eta, eduki ekonomikoa duten hitzarmen guztiek gastua egiaztatzeko dokumentazioa dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 3an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Urrozko zabortegia zigilatzekeo prozesuan Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Rubén Velasco Fraile jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Urrozko zabortegia zigilatzekeo prozesuan Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile foru parlamentariak ondoren azaltzen diren galderei idatziz erantzuteko eskatu du (9-18/PES-00184), eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu da: Nafarroako Gobernua zer jarduketa, eta zer txosten tekniko edo proiektutan

oinarrituta, ari da egiten Urrozko zabortegia zigilatzeko prozesuan?

Urrozko zabortegiak historikoki zerbitzua eman dio Iratiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari (antzinako 10. eremua), eta hartan utzi dira Iratiko Mankomunitatean sortutako hiri- eta industria-hondakinak.

Zabortegia sortzeko eta haren instalazioak eraikitzeko, 1992ko urrian obra-proiektu bat egin zen. Zabortegia 1993ko abuztuan hasi zen zerbitzua ematen.

2001ean, “Urrozko zabortegiaren kokatuta dagoen terrenoari buruzko txosten hidrogeologiko bat” egin zen. Azterlan horretan amaieran, drainatze perimetralak egiteko gomendioa eman zen, isurketen eremuan ura sar zedin saihesteko. Horietan sakondu egin beharra zegoela marga sanoaren kotaraino, balizko biltegi kolubialen edp nahaste-profilen eragina saihesteko.

2002an, Namainsak zabortegia egokitzeari buruzko azterlan bat egin zuen; hartan, zabortegiaren ingurumen-berreskurapenari buruzko etorkizuneko proiektuak jaso beharreko jarduketa batzuk deskribatu eta baloratzen ziren. Azterlan horretan, zabortegiaren eraikuntza-gabezia batzuk aipatzen ziren, eta zabortegian sortutako lixibiatuen produkzio handia, 2001eko txosten hidrologikoaren arabera, egozten zitzaion perimetroko arekak margen mailetaraino ez iristeari, eta, horrenbestez, areka horiek ura zabortegira sartzeko bidea emateari. Lixibiatuen produkzio handiaren arrazoia azaleko buztinen ezaugarriak ziren; izan ere, aukera ematen zuten gorago zeuden labore-alorren drainatzea zabortegira bertara joan zitezkeen. Fluxu hori saiheste arren, planteatzen zen marga sanorainoko drainatze-zanga perimetral bat egin zedin, legarrez betea, urak instalaziotik kanpora bideratzeko.

Azkenean, 2006an, Namainsak “Urrozko Zabortegiaren ingurumen berreskurapeneko proiektua” egin zuen, 2002ko azterlanean oinarrituta. Proiektu hori Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari aurkeztu zitzaion; halaber, zabortegia ixteko baimena eskatu zitzaion.

Ingurumen zuzendari nagusiak 2007ko maiatzaren 21eko 1058 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez baimena ematen baitzuen Urrozko zabortegia ixteko, baldintza jakin batzuk jarrita. Obra Sasoi Eskabazioak SL enpresari adjudikatu zitzaion. Obra urte bereko abuztuaren 31ean amaitu zen.

Lixibiatuen kudeaketa 2008ko uztailean hasi zen, eta 2009ko martxoan ur asko agertu zenez, erabaki zen zabortegiaren iparraldeko perimetroan zanga batzuk egitea, zer gertatzen zen eta uren alboko ekarpenik bazen jakiten ahalegintzeko. Zundaketa guztietan maila freatikoa behatu zen, eta analizatu zen zein sakoneratan egonkortzen zen maila hori zundaketa bakoitzean, eta ondorioa izan zen akuifero txikiak badaudela, elkarrekin lotuta ez daudenak, eta zabortegiari ur-ekarpena egiten diotenak. Lurpeko urekin lotutako arazo bat zen, eta halaxe dago jasota Namainsak 2012ko otsailaren 21ean egindako txostenean.

Txosten hori egin zenetik gaur arte, egoerak ez du hobera egin; hori dela eta, Mankomunitatearekin eta Nafarroako Hondakin Partzuergoarekin egindako bileretan, ezarri zen kokaleku horri behin betiko konponbidea eman behar zitzaiola urgentziaz, gaur egun gertatzen diren arazoak, lixibiatuak sortzekoak, kronifikatu eta okertu ez daitezkeen. Hartara, honako ekintza plan hau ezarri zen:

- Toki azpiegituren 2017-2019 aldirako planean, Nafarroako Gobernuak partida bat jaso du – Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea da haren onuraduna–, Urrozko zabortegiaren eremuan ingurumen-berreskurapeneko proiektu bat egiteko. Aipatutako planean aurreikusten da 3.316.518 euroko hasierako inbertsioa egitea.

- Proiektuaren zailtasuna dela eta, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak, zeina instalazioaren jabea baita, bi faseko konponbide baten alde egin du.

1. fasea.

- Jada eginga den proiektu batean zehaztu da: “Ugardako (Urrotz-Hiria, Nafarroa) zabortegiko ingurumen-berreskurapeneko proiektua”.

- Proiektua datza alternatibei buruzko azterlan bat egitean; azterlan horretan balizko alternatibak baloratzen dira, haietako bakoitzaren eraginkortasuna eta onurak eta kalteak ebaluatuz, ingurumenaren, segurtasun eta osasunen eta ekonomiaren ikuspuntutatik.

- Lehen fase horretako proiektuak 381.093,07 euroko zenbatekoa aurreikusten du (BEZik gabe).

- 2018ko irailaren 11n, Iratiko Mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen administrazio-baldintza partikularren pleguak eta plegu teknikoak onestea, proiektuaren lehenengo faseko zuzendaritza tekniko eta fakultatiboa prozedura sinplifikatuaren bidez lizitatzeko. Une hauetan, lizitazio-fasean dago espediente hori. 2018ko azaroaren 15a baino lehen adjudikatzea aurreikusten da.



- Batzar berean, erabaki zen administrazio-baldintza partikularren pleguak eta plegu teknikoak onestea, proiektuaren lehen fasea prozedura irekiaren bidez lizitatzeko. Lizitazio hori Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu da, eta eskaintzak aurkezteko zain dago. Aurreikusita dago obrak 2018ko azken hiruhilekoan hastea.

2. fasea.

- Lehen faserako alternatibak aztertu ondoren, alternatiba onena garatzen duen proiektua eramanen da aurrera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## Galdera, 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoria-ri buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoriari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18/PES-00185). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuaren 2015etik 2018ra bitarteko Gobernu Ekintzari buruzko Memoriaren edizioaren prezioa:

4.668,33 € (BEZa barne).

Diseinua, edizioa, inprimaketa eta bidalketa zer partidari egotzi zaizkion:

B10005 B1220 2400 921900. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren liburuaren, argitalpenen, ikus-entzunezkoen eta bestelako edizioa.

Banaketa-gastuak eta jasotzaileen zerrenda:

Gutun-azal handiak 67,52

Gureak enpresa: 861,28

Nafarroako Gobernuaren frankeatzea Liburuak: 718,69

Nafarroako Gobernuaren frankeatzea - Gutunak: 340,20

*Guztira:* 1.987,69 euro

Guztira, 2092 ale bidali zitzaizkien honako hauei:

Udalak eta Kontzejuak

Toki entitateak

Mankomunitateak

Sindikatuak

Liburutegiak

Kultur etxeak

Museoak

Erregio-zentroak eta -etxeak

Peñak

Elkarteak

Enpresa publikoak

Legegintzaldi honetan lehendakariarekin lan-bileretan parte hartu duten 160 pertsona

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## **Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko (9-18/PES-00186) galdera egin du, jakin nahi baitu ea kontseilariak Findus-eko zuzendaritzarekin biltzeko asmorik ote duen, foru erkidegotik deslokalizatzea ekiditeko. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Berriki enpresarekin edukitako hartu-emanean, Gobernuak bere burua eskaini zuen babeste aldera konpainia Nafarroan gera dadin; horretarako, Gobernuak txosten bat eginen zuen multinazionalaren zuzendaritzari lekualdatzearen kostuei buruz enpresak aurkeztu beharreko azterlanaren osagarri. Ildo horretatik, irailaren 25ean txosten hori enpresari igorri zitzaion, eta bertan azaltzen zaio zein abantaila duen Nafarroan operatzeak Findus bezalako enpresa batentzat, eta Gobernuaren lankidetzak eskaintzen zaio Nafarroako kokapenak planteatzen dizkien zailtasunei (komunikazioak eta talentu espezializatua) konponbidea emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 16an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## Galdera, familia-harrerari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, familia-harrerari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du familia-harrera buruz (9-18/PES-00187). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

*Nafarroako Gobernuak zenbat diru gehiago bideratu du familia-harrera sustatzeko kanpainetarako?*

2018an zehar, 50.000 euro erabili dira Haurren eta nerabeen II. Plan Integrala izeneko 920008 93300 2269 231702 partidatik.

*Nafarroako Gobernuaren azken harrera-kanpainan: Zenbat pertsonak eskatu du familia-harrerari buruzko informazioa? Zenbat pertsonak eman du izena harrera-familia gisa egokitasuna gainditzeko?*

2018an zehar, 53 informazio-eskaera erregistratu eta erantzun dira. Horietan, hamabi familiak beren egokitasuna baloratzeko eskaera aurkeztu dute.

*Honako informazio-eskaera hauei buruzko datuak jaso nahi ditut: urgentziatzko harrera, aldi baterako harrera eta harrera iraunkorra eta harrera profesionala edo espezializatua. Harrerako familia izateari buruzko informazio-eskaera horrek zer jarraipen edo izapide darama?*

Harrera-eskaerak ez dute harrera-mota bereizten. Egokitasunaren baloraziotik aurrera ezartzen da, eskatzaileekin ados jarrita eta zerbitzuaren beharrezan eta harreraren xede izan daitezkeen adingabeen ezaugarriak kontuan hartuta, zein harrera-mota egiten den: urgentziakoa, aldi baterakoa, iraunkorra...

Informazio-eskaeraren ondotik, programan interesa duten familiekin jarraitzen den prozesua honako sekuentzia honen arabera ezartzen da:

- Programa dela-eta interesa erakusteko lehenengo hartu-emana. Informazioa eskuz, posta elektronikoz edo posta arruntaz ematen da, familiak bete beharreko galdetegiarekin batera. Familiei informatzen zaie ezen, beren burua harrerako familia gisa eskaini nahi badute, eskabide orokor bat aurkeztu beharra dutela, horretarako ezarrita dagoen dokumentazioa gehituta.

- Informazioa elkarrizketa pertsonal batean eman daiteke edo pertsona-talde batentzat programatutako informazio-saio batean. Gainera, programari buruzko azalpenak edo argipenak eskatzen dituzten pertsonetikiko banakako elkarrizketei eusten zaie.

- Behin eskaintza jasota, familiek zerbitzuak programatutako informazio-saioetan parte hartu behar dute.

- Egokitasuna baloratzeko prozesua. Gu-txienez ere bi elkarrizketa daude: horietako bat bizitokian bertan egiten da, bi profesionalen eskutik. Beharrezkotzat jotzen bada, elkarrizketa gehiago egin ahalko dira, familiako bi kideekin batera edo haietako bakoitzarekin banaka.

- Balorazioaren emaitza familiak familia-harrerarako egokia izatea ala desegokia izatea izan daiteke. Bi kasuetan, administrazio-ebazpen bat ematen da, familiaren egokitasuna edo desegokitasuna adierazten duena.

- Balorazioa positiboa bada, familia harrerako familien zorroko kidea izatera pasatuko da.

- Behin adingabe batentzat familia-harrera neurri egokia dela baloratu denean, harrerako familien zorroetik familia bat hautatzen da; hain zuzen ere, adingabearen beharrezan eta familiaren ezaugarrien arabera egokiena dena.

- Kasua balizko harrerako familia planteatzen zaio aurrez aurreko topaketa batean. Baldin eta onartzen badu, adingabea eta familia prestatzeko prozesua hasiko da. Prozesu horrek banakako prestaketa-lan bat aurreikusten du, bai eta pixkanakako egokitze-prozesu bat ere.

- Prozesu hori modu positiboan amaitzen bada, elkarrekin bizitzen hasiko dira eta, ebazpen administratibo bidez, familia-harrera ezarriko da.

Laguntza-baliabideen eta bisita-programaren inguruko baldintzak ezartzen dira.

- Une horretatik aurrera, harrera-prozesuaren jarraipena hasten da.

*2014an egindako kanpainatik egungo 2018ko kanpaina hau bitarte Nafarroan harrerako familiek*

*izandako bilakaera, harrera-mota ezberdinak zehaztuta (urgentziazkoa, aldi baterakoa, iraunkorra, espezializatu)..*

Familia-harrerako programaren bilakaerari dagokionez, 2014-2018 urteetan eraturako harre-  
rak zehazten dira, harrera-motaren arabera:

Urtea	Familiako aldi baterako harrerak...		Familiako harrera iraunkorrak...		Premia	Guztira
	...besteren kontura	...familia zabalean	...besteren kontura	...familia zabalean		
2014	5	2	6	25	7	<b>45</b>
2015	4	6	4	15	17	<b>46</b>
2016	13	1	7	9	12	<b>42</b>
2017	6	6	8	19	11	<b>50</b>
2018 (*)	1	4	6	14	6	<b>31</b>

(\*) 2018-09-30era arteko datuak

*Departamentuko adingabeen arloan harrera-familiekiko arretara bideratutako langileak. Langileen bilakaera 2015etik hona.*

Departamentuko langileak, familia-harrerako programaren arloko arretan jarduten dutenak:

	Atalburua	Bulegoburua	Psikologoa	Gizarte langilea	Gizarte hezitzailea	Guztira
2015	1	1	2	2	1	7
2016	1	1	2	2	1	7
2017	1	1	3	1	2	8
2018	1	1	3	1	2	8

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 11n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorren proiekturako gehieneko gastua ezartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorren proiekturako gehieneko gastua ezartzeari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-

18/PES-00188). Galdera hori 2018ko irailaren 13ko 3488. sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Erantzun gisa, 2019ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuarekin batera doan tributuaren bidezko diru-sarreraren aurreikuspenari buruzko txostena erantsi dugu.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman.)

## **Galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren nahiz Estatuaren zorrean eta Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak Nafarroaren nahiz Estatuaren zorrean eta Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpenaren zehaztapenean izan lezakeen eraginari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-18/PES-00189). Galdera hori 2018ko irailaren 13ko 3489. sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuako Finantza Politikarako Atalak eskatuta Analistas Financieros Internacionales SAK egin duen txostena erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

**ERANSKINA**

EBZk moneta-politika gogorragoa egiteak Estatu-ko zorrean eta Nafarroako zorrean izanen lukeen inpaktua

2008ko krisi finantzarioak aldaketa bat ekarri zuen banku zentral nagusien moneta-politiketan; izan ere, neurri gehigarriak ezarri zituzten beren ohiko moneta-politikan.

Euroaren eremuan, krisi finantzarioak eztanda egin ondoren, EBZren jarduketak ez ziren izan Estatu Batuetako Fedek aurrera eramandakoak bezain irmoak, hasiera-hasieratik. Aktiboen erosketa-programak jada 2009an hasi baziren ere, CBBP1 deitutakoarekin, termino kuantitatiboetan Fedek hartutakoak baino sakontasun txikiagoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, euroaren eremuak 2012an bigarren atzeraldi bat pairatu zuen, zeinak neurri gehigarriak hartzeko beharra ekarri baitzuen. Hala eta guztiz ere, EBZren politikaren norabide-aldaketa handia ekarri zuen neurria 2015eko urtarrileko bileran hartu zen. EBZk jarraitu zuen ikusten behera egiten zutela inflazioa gertatzeko aukerek, eta horrek arriskuan jartzen zuela inflazioa % 2rantz eramateko helburua betetzea, eta honako neurri hau hartu zen: EBZk zuzenean erosiko zuen euro eremuko gobernu zentralak, estatu-agentziek eta nazioz gaindiko erakundeek jaulkitako zor publikoa (aurrerago,


neurri hori erakunde azpisubirauek jaulkitako zorrera ere zabaldu zuen). Programa horrek Public Secor Purchase Programme (PSPP) deituratu hartu zuen. 2018ko maiatzeko datuekin, EBZko zor-erosketek 2 bilioi eurotik gorako bolumena zuten. Hori guztia konbinatu da EBZko erreferentziako interes-tasek behera egitearekin. Interes-tasa hori % 0ko mailan dago gaur egun.

Neurri horiek ekarri dute zor publikoaren interes-tasak minimo historikoetara iristea, eta horretaz baliatu dira Europako altxorrek beren zorren zorroren batez besteko kostua gutxitzeko eta batez besteko bizitzak igotzeko. Egoera hori argi gertatu da Espainiako Altxorren kasuan.

Zor berriaren jaulkipenaren kostua % 0,70koa izan da 2018an. Jaulkipen-tasak zirkulazioan dagoen zorraren batez besteko kostua baino nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen duenez, batez besteko kostu horrek txikitzen jarraitzen du, % 2,45era iristeraino (minimo historikoa).


Halaber, kostuaren gutxitze horrekin batera batez besteko bizitzaren igoera gertatu da, eta horrekin birfinantzaketaren arriskua murriztu da eta Altxorra askoz hobeki prestatuta dago tentsio finantzarioak sortu ahal dituzten etorkizuneko gertakarietarako. Batez besteko bizitza 2018an 7,5 urtekoa izatera iritsi da (maximo historikoa).

**Jaulkipen berriaren eta zirkulazioan den zorraren batez besteko jaulkipen-tasa (%)**



Iturria: Afi, Tesoro

**Altxorren zirkulazioan den zorraren batez besteko bizitza**



Iturria: Afi, Tesoro

Altxorrerako gertatu den egoera hori Nafarroako Gobernuaren kasurako ere errepikatu da; horrek, halaber, bere kreditu-kalitate jasoa dela eta, aprobetxatu du bere burua finantzatzeko oso aldekoak diren interes-tasekin, eta bere zorroaren batez besteko bizitza luzatzeko.

Hala eta guztiz ere, 2019an inflexio-puntu batean gaude, zeren eta ziklo ekonomikoak aldeko bilakaera izaten jarraitzen badu, EBZ bere moneta-politika gogortzen hasiko baita. Une hauetan espero da EBZk 2019ko urtarriletik zor-erosketa garbiak egiteari uztea<sup>(1)</sup>, eta oso litekeena da 2019. urtearen amaierarako erreferentziako interes-tasa igotzen hastea. Bi neurri horiek ondorioa izanen da zor publikoaren interes-tasek gora egiten dutela, eta horrek, azkenean, talka egiten du bai Altxorraren, bai Nafarroako Gobernuaren finantzaketa-kostuarekin.

Halere, egia da horrek ez lukeela inpaktu nabarmenik eduki beharko bi erakundearen interesen zama. Interes tasak gora egiten hasita ere, oso litekeena da igoera hori oso pixkanaka egitea, eta datozen urteetan jaulkipenaren kostuak zorren batez besteko kostua baino txikiagoa izaten jarraituko duenez, azken horrek gutxitzen jarraituko du, bai Altxorreko kasuan, bai Nafarroako kasuan ere.

Gainera, bi erakundeek bere zor gehiena interes-tasa finkoarekin dute; hori dela eta, zorren zatirik handienak ez ditu pairatuko interes-tasaren goranzko mugimendu horiek.

*(1) EBZk jarraituko du zorren muga-eguneratzeak berrinbertitzen, baina jada ez du balantzea handituko erosketa garbien bitartez.*

## **Galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko intsumisoen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, nahitaezko soldadutzaren aitzineko intsumisoen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 21eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (9-18/PES-00190). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Joan den uztailaren 30ean, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak ikerketa-kontratu bat sinatu zuen Gaztela-Mantxako Unibertsitatearekin. Kontratu hori sinatzea astetako aurretiazko lan-

prozesu baten emaitza izan zen. Kontratuaren helburua da “Nafarroako kontzientzia-eragozpenaren aldeko mugimenduen bilakaera historikoari buruzko txosten” bat egitea, begirada jarritz bake-kultura bat eraikitzeko egin zuten ekarpenean. Frankismoaren amaierako urteetan sortutako kontzientzia-eragozpenaren aldeko mugimenduak balore demokratikoak eta bake-kulturaren eta bakearen aldeko hezkuntzaren formulazio bat jasoko zuen justizia sozialari buruzko diskurtsoa baliatu zituen, barneko zein nazioarteko gatazkei konponbide baketsua jasoz.

Ikerketa-taldea Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Historiako doktore eta Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Historia Garaikideko irakasle Pedro Oliver Olmok zuzentzen du. Pedro Oliverrek Espetxearen eta Zigor Erakundearen Historiari buruzko lantaldea koordinatzen du –Espainiako eta atzerriko hainbat unibertsitateko adituak biltzen ditu lantalde horrek– eta “Zigor-jardunbideen unibertsoa: espetxeen eta kontzentrazio-esparruen sistema Espainiako gerraostean” (MINECO) izenburua daraman ikerketa-proiektuko ikertzaile nagusia da.

Enkargatutako azterlanaren funtsezko helburua da funts dokumental bat prestatzea kontzientzia-eragozpenaren aldeko Nafarroako mugimen-

duen ibilbideari buruz. Azterlan horrek lau ikerketa-ardatz aurreikusten ditu, Nafarroako Memoria-ren Institutuaren barruan kontzientzia-eragozpenaren memoriari buruzko artxibo bat sortzera bideratuak.

1. Nafarroako kontzientzia-eragozpenaren aldeko mugimendua bere esparru historikoan kokatzea, bake-kulturaren eraikuntzarako egiten duen ekarpenarekin lotuta.

2. Iturri hemerografiko eta ikus-entzunezkoen katalogo bat egitea.

3. Kontzientzia-eragozpenaren aldeko kolektibo bizen bitzta organikoa ezagutzea eta haren barruko artxiboen inbentarioa egitea.

4. Kontzientzia-eragozpenari buruzko memoria bat sortzea.

Txostena entregatzeko epea 2019ko ekainaren 10ean amaituko da. Txosten horretan, memo-

ria-lanerako garrantzitsuak diren iturriak zehaztuko dira, bake-kulturarako ekarpen bat izan ziren kontzientzia-eragozpenaren eta intsumisioaren aldeko mugimenduei dagokienez. Une horretan, informazio osoagoa eta zehatzagoa daukagunean, eginen da eginbeharren egutegi zehatzagoa.

Nolanahi ere, txostena garatzearen esparruan, urriaren 2an ikertzaile nagusi Pedro Oliver Olmoren eta kontzientzia-eragozleen eta intsumisioen arteko lehen topaketa izan zen. Eta datorren azaroan harreman horiek areagotuko dira, xede horretarako ikertzaile bat kontratatu ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde